

Ansorena txistulariei omenaldia

■ Ansorenatarren omenez Oroigarri plaka jarri dute Leokadistin, beren jaiotetxean.

ANSORENATAR familiaren oroimenez plaka bat jarri zuten familia bizi izan zen etxean, Leokadistin. Lehendabizi, Musika eta Txistulari banden eskutik "Mendirik mendi" abestiarekin diana egin zen Kale Nagusi-an barrena. Ondoren, Leokadistiraino joan ziren eta Txistulari Bandak, Ansorenatarrei abesti bat eskaintzarekin batera Mertxe Etxeberria alkateak familiaren oroimenez jarritako plaka bista arazi zuen.

Alkateak azpimarratu egin zuen Ansorenatarrek musikagintzan egindako lana. "Ansorenatarren abestiak gogoan ditugu; gainera, hemendik aurrera familiaren oroimenez beste toki bat izango dugu Hernanin, beren jaiotetxean" esan zuen. lehendik, Ansorenatarrek kale bat dute beren izenean. □



Ansorenatarren familia, Mertxe Etxeberria alkatearekin.



Astelehen goizean Errenta Deklarazioko ofizinan jende mugimendu handia ibili zen.

Gaur da Errenta Deklarazioa egiteko azken eguna

ERRENTA eta Patrimonioren Aitorpena egiteko azkeneko eguna ekainaren 25a da, alegia gaur. Hernanin bertan egin nahi duenak Latsunbe kalean dauka Diputazioaren ofizina (Latsunbe 8-9, kiroldegi atzeko bigarren blokean), goizeko 08:00etatik 14:00ak arte.

Atzo goizean jende dezente zebilen Deklarazioa egiteko bulegoan. □

Axeri Dantza eta herri bazkaria gaur

IGANDEKO omenaldian indarrak hartu eta gero sokari helduta, maskuria astintzen eta txistulariak lagun dituztela irtengo da gaur Axeri Dantzako koadrila. Gaur, bihar eta etzi irtengo da goizeko bederatzietan, sokamuturra eta gero. Bestalde, Gazte Guneak antolatuta herri bazkaria egingo da gaur Plaza Berrian eguerdiko 14:00etan. Iaz jendetza handia bildu zen eta aurten ere ez da gutxiago espero.

Sokamuturra

Gaur 07:30etan, sokamuturra izango da eta Udalak gogora arazi du 14 urtez beherakoak ezin dutela atera, 1993ko dekretuaren arabera. □

GAURKO EGITARAUA

- 07:00- Diana.
- 07:30- Sokamuturra.
- 09:00- Axeri Dantza.
- 09:30- Bola jokoa Floridan.
- 10:00- Toka, igel, bolo eta poto lehiaketak Jubilatutako Etxean.
- 11:00- Meza Elorrrabin.
- 11:00- *Beti-Ola* Elizatxoko txarangaren irteera.
- 12:00- Erraldoi eta buruhandien konpartsa.
- 14:00- Herri bazkaria.
- 17:30- Umeentzat zezenak
- 18:00- *Real Santa Cecilia mariachiekin* kalejira.
- 19:00- *Betikoak* txarangaren irteera.
- 23:00- *Izotzekin* dantzaldia.
- 23:00- Molotoff iratiaren txosnan dantzaldia.
- 24:00- *Incansables* txaranga

Ondo pasa
San Joan jaiak.



**IRUBIDE
JATETXEA**

Epele auzoa 7 - HERNANI
☎ 943 552 480
Mobila: 667 208 702

**ARALAR
TABERNA**

Zapa 8 - 943 33 15 06

Ondo pasa San Joan jaiak - GORA SAN JOAN

**GESTORIA
ZULAIKA
ASESORIA**

Kardaberaz 68 - Tel. 943 55 14 94 - 55 19 12 - Faxa 943 55 11 30

URUMEA Autoak

SEAT ETA OPEL ZERBITZU OFIZIALAK

Ondo pasa Sanjoanak.

URUMEA AUTOAK
Akarregi auzoa 25 - 943 332274

Auto HERNANI

Akarregi auzoa 25 - 943 552546

HERNANI
HI ZKUNTZAK
HERNANI ENGLISH
(Gure Ingelesetxea)

- Udarako matrikula eta 2002-03 kurtzorako aurrematrikula: ekainaren 27, 28 eta uztailaren 1ean.
- 2002-03 kurtzorako matrikula: Irailaren 9tik aurrera

Informazioa eskatzeko:
Deitu Alan / Joe: 943 33 11 08
KALE NAGUSIA 41, 1
Zorionak eta Gora San Joan

**YONE
boutique**

Kale Nagusia 63
-Hernani-
Hipodromo etorb.
-Lasarte-

Gora
San Joan



Akelarrean batzuk ez zuten hotz haundirik.

Euria eta festa, atertu gabe

AURTEN ere San Joanek apenas ekarri digun San Antoniok adinako eguraldirik. Euriak ia ez du atertu, baina, ostirala ezkeroz festa ere ez da gelditu.

Igande iluntzean akelarrea eta San Joan sua izan ziren, justu aurretik Herri Arteko

pelotari txapeldunei harrera egin zitzairen Udaletxean.

Akelarreko taldea herrian barrena ibili zen eta gero, inksizioaren inguruko antzerkia egin zuen. Jende asko zen begira, eta tarteka euria dezente eginagatik, festa giroak ondo

eutsi zion. Ondorenean, San Joan sua eta dantzak, Kantaita... Batasunako zinegotziak eta zenbait jendek *Faxismoari Stop* lema osatu zuten su inguruko korroan, nikietan letra bana jantzita. Gauean, jendea tamainan eta giro polita. □

DANTZA SUELTO TXAPELKETA

Aitor eta Amaia Parrondo txapeldun

KRISKITIÑAK antolatuta, Dantza Suelto txapelketa jokatu zen atzo. Hamahiru bikote atera ziren eta 3 hernaniarrak. Pronostikoak bete eta Amaia eta Aitor Parrondo izan ziren txapeldunak. Bigarren, Aitor Ena eta Mila Ilarreta izan ziren, eta hirugarren Ekain Sardon eta Arantxa Garin hernaniarrak. Parrondo anai-arrebak Euskal Herriko Txapela irabazi berri dute eta omenaldi gisara beste bi bikote hernaniarrek agurra dantzatu zioten. Sariak Udal ordezkariak banatu zituzten. Sandiusterriko aretoa erabat bete zen. □



Hernaniko dantzariak Parrondotarrei agurra dantzaten.

HITZ BITAN



Hernaniko Musika Banda atzo kontzertua ematen.

✓ MUSIKA BANDA

Kontzertua arkupetan. Musika Bandak kontzertu polita eman zuen atzo Udaletxeko arkupetan. Jendea ere dezente bildu zen.

✓ ISTRIPUA HERNANIN

Bost lagun zauritu ziren bi kotxek elkar jota. Igande arratsaldeko 17:10etan Renault Laguna eta Opel Vectra batek elkar jo eta bost lagun zauritu ziren, 3 gizonetako (G.U.G., G.M.G., eta J.A.I) eta bi emakumetzko (M.J.E.Z eta M.P.C.G.).



Mus txapelketako parte hartzaileak sari eta guzti.

✓ XALAPARTA-MUS TXAPELKETA

Martin-Txufo txapeldun. Xalaparta elkartearen museko sari banaketa izan zen larunbatean. Martin-Txufok irabazi zuen. Bigarren, Julio-Jesus eta higugarren, Martin-Goñi. Afarian 72 lagun inguru bildu ziren eta sari banaketa afalondan egin zen.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

✚ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Bulnes Florida auzoa ☎ 943 557738
- ▶ Gauez: Atxa-Orbea Lasarte. Hipodromo 6 ☎ 943 363549

Arrigoain jatetxea

- Eguneko menua
- Plater konbinatuak
- Karta

Ondo pasa SAN JOAN Jaiak

Santa Barbara 87 (Harrobian)

☎ 943 55 00 97

-Astelehen eta astearte gauetan itxia-

BERTAKO FRUTA ETA BARAZKIAK

Erkerro
Fruituak
Antziola 5
20.120 HERNANI

Bertako produktuak
Fruitu exotikoak
Telefonoz eskatzeko:
☎ 943 33 32 75

Ondo pasa San Joan jaiak

GORA SAN JOAN

EDARITEGI A

JOMABER

San Joan jaiak ondo pasa.
Kale Nagusia, 7
☎ 55 00 32
HERNANI

CATALANA OCCIDENTE Aseguruak

Bautista Biurrarena Etxegoien

GORA SAN JOAN

Kardaberaz 40 -Behea

Tel. 943 33 24 40

Faxa 943 556602

Mobila 610 29 27 01

20120 HERNANI

GSE

LAN AHOLKULARITZA FISKALA KONTABLEA


GSE

Ondo pasa San Joan jaiak.

Atzieta 51 Behea - 20.120 HERNANI

Tel: 943 55 02 54- Faxa: 943 33 58 01

DORRONSORO



OKINDEGIA

Bertan egindako kalitatezko ogia

GORA SAN JOAN

J.DORRONSORO OKINDEGIA, S.L

Lizeaga, 7 ☎ 943 33 36 18 -20120 HERNANI

HERNANI

KixKal
Taberna
nagusia 15

Zatoz festara.
GORA SAN JOAN

GARAYAR AUTOBUSAK



AUTOBUS ZERBITZUA LINEA ERREGULARARRAK

Hernani - Aiete- Donostia - Aiete- Hernani Andoain-Urnieta-Hernani-Donostia-Hernani-Urnieta-Andoain

ZERBITZU DISKREZIONALAK

San Joan jai zoriontsuak opa dizkiegu hernaniar eta bisitari guztiei. GORA SAN JOAN

Jauregi bailara 17 - Tel: 943 556 658 - 943 556 662
Faxa 943 331 208 - e-maila: mgarayar@facilnet.es